

CNMC-k onespena eman behar dio operazioari

DOUGLASEK 103 IF LURRINDEGI EROSI DITU

- **Douglas GmbH-ren jabetzakoa izango da aurrerantzean saltoki sail hori, eta horrek langileen lan baldintzak subrogatuko ditu**
- **Operazio hau EROSKIren strategiaren parte da, fokua bere indarguneetan eta errentagarritasunean jartzen ari baita**

Elorrio, 2017ko uztailaren 27a.- Douglas GmbH-k akordio bat egin du EROSKI Taldearekin 103 If lurrindegia erosteko. Operazio honetan, saltoki horietako lanpostuei eutsiko zaie, eta langileen lan baldintzak subrogatu egingo dira.

Operazioa gauzatzeko, Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeak onartu behar du. Bitartean, denda horiek beren jardunean segituko dute.

EROSKIk lehentasunezko helburu gisa hartu du lehiakortasuna datozen urteetarako, eta operazio hau EROSKIren strategiaren parte da, fokua bere indarguneetan eta errentagarritasunean jartzen ari baita. EROSKIren Baliabideen Saileko zuzendari nagusiak, Javier Amezagak, baikortzat jo du operazioa, izan ere *"epe erdira positiboa izango baita EROSKIren errentagarritasunerako"*.

Operazio honekin, EROSKI Taldeak 1.270 supermerkatu eta 54 hipermerkatu ditu, eta, horiekin batean, 19 Carry&Carry eta 330 denda askotariko negozioetan, hala nola, gasolindegia, lurrindegia, optikak, bidaia agentziak eta kirol materialen dendak; horrez gainera, 8 on line denda ditu. EROSKIren elikagaien banaketa sare komertziala batez ere penintsularen iparraldean dago hedatuta, eta eskualde horretan toki sendoa du Taldeak, merkatu kuotaren %18 hartzen baitu.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)